



Hurrengo grafikoetan ondokoak ikus daitezke: batetik, Arabako behatoki baten kotaren (garaiera) eta bertako batez besteko tenperaturaren arteko erlazioa; eta, bestetik, Arabako behatoki baten kotaren (garaiera) eta urteko prezipitazio metatuaren arteko erlazioa.



❖ Hurrengo baieztapenetako zein uste duzu onar daitekeela, grafikoan dauden datuak aintzat hartuta?
 Eman erantzun horren arrazoiak.

- Garaiera eta tenperaturaren artean ez dago inolako erlaziorik.
- Badirudi zenbat eta garaiera handiagoa izan orduan eta tenperatura altuagoa dagoela.
- Badirudi zenbat eta garaiera handiagoa izan orduan eta tenperatura txikiagoa dagoela.
- Badirudi garaierak ez duela eraginik tenperaturan.

❖ Hurrengo baieztapenetako zein uste duzu onar daitekeela, grafikoan dauden datuak aintzat hartuta?
 Eman erantzun horren arrazoiak.

- Garaiera eta prezipitazio kopuruaren artean ez dago inolako erlaziorik.
- Badirudi zenbat eta garaiera handiagoa izan orduan eta prezipitazio gehiago dagoela.
- Badirudi zenbat eta garaiera handiagoa izan orduan eta prezipitazio gutxiago dagoela.
- Badirudi garaierak ez duela eraginik prezipitazioan.